

Ikasle digitalak apunte beharrik ez

Aro digital honetan, informatikak eskaintzen dituen aukerak hezkuntzan aplikatzea ezinbesteko kontua bilakatzen ari da. Aurtengo Araba Euskaraz gidatuko duen Oiongo San Bizente Ikastola bisitatzea gizakiaren etorkizunarekiko konfiantza berreskuratzea da. Gaurko hurrei dagokienez etorkizuna, hura kudeatzeko erreminta egokiak erabiltzen ikasten dute.

URKO SÁENZ DE BURUAGA

SAN BIZENTE IKASTOLAKO atea zabaltu dizkigu David Sanchezek, bertako IKT (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) koordinatzaileak, datozen belaunaldien prestakuntza azaltzeko. “Ni naiz Teknologia Berrien irakaslea. Honetan daramatzadan hamar urteetan seko aldatu da irakasgaia planteatzeko modua. Hasieran ofimatika ematen zen. Gaur egun, inori ez zaio azaldu behar nola aldatu letra mota *Word* dokumentu batean... [barre egin du] Barkatu, *Open Office* dokumentu batean. Hori da daukagun lasta: estandar bezala hartu ditugu jabetun programak. Hori aldatzeko ere egin behar dugu lana”. Hain da sakona software jabetunaren eragina, ezen ez gara kontziente. Baina software askea ez da kontu tekniko soila, atzetik ditu filosofia eta etika irmoak.

Aplikazioak aske izateak ez du bakarrik esan nahi doakoak direla, baizik eta edonork programaren iturburua ikusi eta aldatzeko aukera duela. Hau da, programaren sortze eta berritze prozesuan parte har dezake, eta honek partekatze, laguntza eta elkartasun balore indartsuak ditu.

“Hasieran erabiltzen genituen aplikazioak ez ziren askeak. Iaz sistema eragilea aldatu genuen, jabetu ginelako behartuta geundela ikasleak software askean heztera. Software askeko

programa eta sistema eragileak baino ez ditugu erabiltzen ikasleekin, eta aurtun ari gara migrazioa egiten ikastolako beste esparruetara: gure IKT Planaren lehenbiziko helburua da klustroaren formazioa, alferrikakoa baita ordenagailuak erostea, gero irakasleek ez badakite zer gauza dauden eta ez badituzte erabiltzen”. Software askeak hezkuntzan duen garrantziari buruz gehiago sakontzeko, irakurri Lurmutur Hiriko Heziketa Irekiaren Aitormena (www.capetowndeclaration.org).

Bizitza erratzuz

San Bizente ikastolaren lan egiteko modua ezagutzeko bere bloga (www.sanbizenteikasola.org) bisitatu behar da. Bertan jazoera interesgarriak bildu dituzte, Youtube-ra igo-tako bideoak eta Flickr-en zintzilikatutako argazkiak ikus daitezke, eta abar luze batez

David Sanchez,
San Bizente
ikastolako IKT
koordinatzailea.

JOSU SANTESTEBAN



Hezkuntza 2.0

osaturiko bilduma multimedia kontsulta daiteke. Blogetik bertatik ere sar gaitezke irakasleen blogetara. “Irakasle bakoitzak dauka bere bloga, non islatzen diren klasean ematen diren edukiak, gehi eduki gehigarriak, gehi etxeko lanak”.

Blogak funtzionatzen du, batez ere, Lehen Hezkuntzako seigarren mailatik aurrera, adin horretan hasten direlako baliabide hauek erabiltzeko gai izaten. Txikienen kasuan, gurasoak dira bloga gehien erabiltzen dutenak, euren umetxoan argazki eta bideoak ikusteko irrikaz baitaude.

Hala ere, gurasoen *voyeur* rolaz aparte, aukera praktikoagoak ere eskaintzen dizkie Internetek. Google Calendar-ek, kasu, agenda baten moduan funtzionatzen du. Bertan komunitate konkretu baterako eginkizunak finka daitezke. Adibidez, irakasleak ikasleek egin beharreko lanak apuntatzen ditu. Horrela, gazteek edozein momentutan ikus dezakete zer egin behar duten, eta gurasoek askoz errazago kontrolatzen dituzte euren seme-alaben eginbeharrak. “Google Calendar-ekin askoz koordinatuago gaude. Hau irakasleei azaldu nienean batek eskerrak eman zizkidan gairak gendutako *post-it*aren garaia”, dio Sanchezek.

Informatikak hainbeste baldintzatzen duen irakaskuntza eredu honek klasean lan egiteko modua aldarazi du. San Bizente ikastolan ordenagailu txiki ultraeramangarriak erabiltzen dituzte. “Ikastolak erosi ditu, eta irakaleak, fotokopiak beharrean hauek erabiltzen ditu. Ordenagailu hauek ordeztu dute liburutegia. Orain Wikipedia erabiltzen da, gainera modu bietan: materiala hartzen eta materiala sortzen”. Izan ere, hau da hezkuntza 2.0-ren beste berrikuntza eta abantaila: ikaslearen rol pasiboa baztertzen du, eta ariketa sortzaile aktibo bilakatzen du ikaskuntza. Kontuak dituen aplikazio praktikoez gain, ikasketari motibazioa gaineratzen dio. Lehen, ikasleek egiten zuten esfortzua irakaslearen apalategian gelditzen zen. Orain ondo eta txukun egiteko motibazio erantsia dago,



Ikasleak klasean, bakoitza bere ordenagailu eramangarriarekin. Ekainaren 21ean Oiongo San Bizente ikastola arduratuko da Araba Euskaraz-en antolakuntzaz. Aurtengo lema: “Hauspoari eraginez”.

jendeak informazio iturri bezala erabili ahal izango baitu.

Hau guztia argi diezagun, galdera batzuk egin dizkiogu David Sanchez irakasleari:

Giza harremanen inguruan polemika sortu duen kontua da ordenagailuarena. Gazteak elkartu ala isolatu egiten ditu?

Askotan entzuten den diskurtso hori, niretzat, oso diskurtso antzua da, beldurrean oinarritua. Gurasoek ez dutenez ulertzen semea zer ari den egiten, zerbait txarra balitz bezala hartzen dute. Baina ikasleari interesatzen zaiona da beste aldean lagunak daudela, edo irakaslea. Ordenagailuarekin egoteko, gazteek ez diote kentzen denbora lagunekin egoteari, telebista ikusteari baizik. Badaude ikerketa pila bat. Denbora kentzea telebista ikusteari –hori bada benetan egoera isolatzailea– eta ematea lagunekin *txateatz*en egoteari, hori isolatzea da? Tresna hauek komunikazio eredu berri bat ezartzen ari dira.



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
Ezizgo Poligonoa • Zikufaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Ikastolak hain pisu handia ematea hizkuntza nagusi ingelesa duen plataforma bati arrisku bezala ikus daiteke. Zein da euskararen egoera mundu digitalean?

Software askea, irekia denez eta edonork ekarpenak egin ditzakeenez, hizkuntz guztietara lehen itzultzen den software-a da. Ikastolan erabiltzen ditugun programen %90 euskaratuta daude. Edukiei dagokienez, azken bi urteotan aurrerapauso itzela eman da. Gero eta material gehiago dago euskaraz, eta kalitate onekoa. Horretan ikastolak hartu behar du lekukoa. Gu izan behar gara gizartearen eragileak materiala ekoizten eta sortzen, jende guztiak erabiltzeko.

Horrelako iniziatibek ez dute momentuz erakunde publikoengandik babes berezirik jaso. Jaurilaritzak diru-laguntzak eman ditu, baina ez du proiektu konkreturik bultzatu.

Nik uste dut Eusko Jaurilaritzatik hasiko direla gero eta gehiago kontrolatzen zer gertatzen den diru horrekin. Atzetik daude gai honetan. Guk daukagun abantaila da ikastola txikia garena eta malgutasun handiagoa dugula mugitzeko *megaestruktura* batek baino. Eskola publikoan horrelako iraultza teknologikoa egin beharko balitz, hor dagoen kasuistika guztiarekin, askoz konplikatuagoa izango zen. Lehenago edo beranduago hasi beharko dira norabide honetan mugitzen, baina normala da ere gehiago kostatzea.

Baina ez zabiltzate bakarrik bide honetan.

Beste ikastola batzuekin harremana dugu, eta eredia ezartzen ari gara ikastetxeentzat. Jende askok pentsatzen du hau ezinezkoa dela. Baina begira, gu ari gara egiten eta, ezinezkoa ez izateaz gain, ona da, gauza asko egin daitezke eta filosofikoki etikoa da.

Hau da hezkuntza 2.0-ren beste berrikuntza eta abantaila: ikaslearen rol pasiboa baztertzen du, eta ariketa sortzaile aktibo bilakatzen du ikaskuntza

Nola moldatu dira irakasleak honetara?

Gehienek ondo hartu dute. Blog bat egitea oso erraza da eta oso tresna ona irakaslearen lana hor jartzeko eta beste materiala erabiltzeko, material multimedia, adibidez. Orain arte material multimedia gelatik kanpo zegoen. Gaur egun, irakaslea sartzen da bere eramangarriarekin, jartzen du kanoia, banatzen ditu eramangarri txikiak eta denek material multimedia dute esku artean. Eta oso ezberdina da ikustea sumendi baten marrazkia edo sumendiaren inguruko bideoak Youtuben. Hau modu analogikoan egitea ere posible zela? Ba bai, baina irakasleak askoz motibatuago daude Youtubeko bideo bat ikusteko, entziklopediako artikulua bat irakurtzeko baino.

Kopiatu/itsatsi-ren erraztasunak ez al dizkio gogoeta kritikoari oztopoak jartzen?

Gogoeta kritikoaren kontua jorratu behar da baliabideak digitalak edo analogikoak direla ere. Gainera, modu digitalean tresna gehiago daude jakiteko ea zer-bait kopiatua al den, testuak parekatu eta antzekotasunak bilatzen dituzten webguneak daudelako. Hala ere, onartu behar da sarean informazio gehiegi dagoela. Horrenbeste, ezen ikasle batek ezin du dena kudeatu. Espiritu kritikoa garatu behar da irakurtzeko, ondorioak ateratzeko edo besteekin elkarlanean aritzeko tresnak garatuz. Garrantzitsua da ikasleek erabiltzea gustuko eta esku- ra dituzten baliabideak, baina irakaslearen laguntzarekin.

Tresna horiek modu hezigarri eta probetxagarrian erabili daitezke, eta ikasleei erakutsi behar zaie nola gorde euren pribatasuna, *ciberbullying*-a zer den eta zer nolako ondorioak dituen... Baina ezin dira teknologia berriak debekatu, errealitatea hori baita eta ezin da ukatu. ■



Santurtzi

Ekainaren 19tik 28ra, Herriko parkean

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!